

# Klasekoek beti ilargian zaudela esaten digute

---

SAIOA ALKAIZA GUALLAR

DBH 3. eta 4. kurtsoak 3. saria

Iruñeko Eunate BHI

Klase orduan nago ni eta  
galdu egin dut norantza  
errealitate aspergarria  
pentsamendurantz balantza  
buru barnean dudan munduan  
murgildu egin naiz antza  
ene bizitza guztia hor dago  
bertan nire esperantza  
amets artean atsedean hartu  
ahaztu bizitza latza  
ilusioetan nire burua  
benetan da aberatsa  
nire bizitza ta existentzia  
ilusio horietan datza  
beti ilargian denbora pasa  
izarrekin egin dantza.

Hainbat problema mundu  
honetan  
reflexioak tarteko  
zenbat pertsona daude kartzelan  
injustiziaren menpeko?

Abiada Handiko Trena badator  
gure lurak suntsitzeko  
eta gazteak atxiloturik  
soilik gazte ez izateko  
etxebizitza mundua dago  
espekulazioz lepo  
horrela zenbait poltsiko bete  
beste batzunak husteko.  
Gure herria nahiz arazotan  
dagoen guztiz konpleto  
nire buruan dago denbora  
soilik zugar pentsatzeko.

Zure maitasun apurra laister  
niri zenidan ukatu  
baina buruan oraindik zaitut...  
sentitzen dut ta barkatu.  
Bizitza osoan asko sufritu  
hori da niretzat patu  
txiki-txikiak ginenetikan  
beti hainbeste maitatu  
nire bihotzan erdigunea  
zu zintudan izendatu  
maita gaitezen, ahaztu dena  
beldur guztiak akatu  
soilik zu ta ni gaude munduan  
momentu hauze gozatu...  
burua jaso, klasean nago  
dena dut imajinatu.